

2021EKO URRIAREN 28AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 28 DE OCTUBRE DE 2021.
=====	=====
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>ALKATEA</u>	<u>ALCALDESA</u>

Amaia Aguirre Muñoa and.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>VICEALCALDESAS</u> Y <u>VICEALCALDE</u>
---------------------	---

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
--------------------	-------------------

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Mikel Bildosola Agirregomezkorta (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Carolina Uribe de la Espriella (E. PODEMOS)

IDAZKARI NAGUSIA

SECRETARIO GENERAL

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Jakinarazten da Paula Amieva Clemente korporatiboak, amatasunagatik atsedendian, botoa Carolina Uribe de la Espriella korporatiboaren esku utzi duela.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

EBAZPEN ATALA

154.- GETXOKO UDALBALTZAK 2021EKO IRAILAREN 30EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2021eko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onartzea.

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

155.- LANPOSTUEN ETA PLANTILLAREN ZERRENDA ALDATZEA: LANGILEEN ETA ANTOLAKUNTZAREN ARLOAN, AOT PLAZA BAT SORTZEKO, ETA

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Se hace constar que la corporativa Paula Amieva Clemente, en periodo de descanso por maternidad, ha delegado el voto en la corporativa Carolina Uribe de la Espriella.

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

PARTE RESOLUTIVA

154.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE SEPTIEMBRE DE 2021.

Por unanimidad se aprueba el acta de la sesión ordinaria celebrada el día 30 de septiembre de 2021.

ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

155.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA: EN EL ÁREA DE PERSONAL Y ORGANIZACIÓN PARA LA

**GOBERNU IREKIAREN ETA
MODERNIZAZIOAREN ARLOAN
INFORMATIKAKO LIZENTZIADUN
PLAZA BAT SORTZEKO.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Lehenengoa.- **ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA** plaza bat sortzea Administrazio orokorreko eskalan, azpieskala teknikoan.

**CREACIÓN DE 1 PLAZA DE T.A.G.,
Y EN ÁREA DE GOBIERNO
ABIERTO Y MODERNIZACIÓN
PARA LA CREACIÓN DE 1 PLAZA
DE LICENCIADO/A EN
INFORMATICA.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Primero.- Crear una plaza en la escala de Administración General, Subescala Técnica, de **TECNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL.**

MOTA/CLASE	KATEGORIA/CATEGORIA	AZPITALDEA/SU BGRUPO	LANALDIA/JORNADA	PLAZAP LAZA	LANTOKIA/CENTRO DE TRABAJO
Goi Mailako Teknikariak/ Técnicos Superiores	Administrazio Orokorreko Teknikaria/ Técnico/a De Administración General	A1	CO	-	"Etxe Sorgindua" Udal Bulegoa / Oficina Municipal "Casa Encantada"

Bigarrena.- "**ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA**" lanposturako dotazio bat sortzea, Langile eta Antolaketa arloari atxikia, ezaugarri hauekin:

Segundo.- Crear una dotación del puesto de trabajo "**TECNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL**", adscrita al área de Personal y Organización, con las siguientes características:

KODEA /CODIGO:	-
LANPOSTUAREN IZENA/DENOMINACION DEL PUESTO:	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA /TECNICO/A ADMINISTRACIÓN GENERAL
BETETZEKO MODUA/ FORMA DE PROVISION:	LEHIAKETA / CONCURSO
ARAUBIDE JURIDIKOA/REGIMEN JURIDICO:	FUNTZIONARIOA/ FUNCIONARIO
ADMINISTRAZIOA/ ADMINISTRACION:	GETXOKO UDALA /AYUNTAMIENTO DE GETXO
ESKALA/ESCALA:	ADMINISTRAZIO OROKORRA ADMINISTRACION GENERAL
AZPIESCALA/SUBGRUPO:	A1
LANPOSTU-MAILAKO OSAGARRIAREN MAILA/NIVEL DE COMPLEMENTO DE DESTINO:	24
BERARIAZKO OSAGARRIA/ COMPLEMENTO ESPECIFICO	T19
HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: / PERFIL LINGUISTICO:	4

DERRIGORTASUN DATA/ FECHA PRECEPTIVIDAD:	01/01/2021
TITULAZIOA/TITULACION:	Zuzenbidean Lizentziatua/ Licenciado en Derecho
BESTE BETEKIZUN BATZUK/ OTROS REQUISITOS:	
OHARRAK/ OBSERVACIONES:	
LANTOKIA/ CENTRO DE TRABAJO:	Getxoko Udaleko administrazioko bulegoak/ Dependencias administrativas Ayuntamiento de Getxo

Hirugarrena.- Informatikan lizentziatuan plaza bat sortzea Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan.

Tercero.- Crear una plaza en la escala de Administración Especial, Subescala Técnica, de LICENCIADO/A EN INFORMATICA.

MOTA/CLASE	KATEGORIA/CATEGORIA	AZPITALDEA/ SUBGRUPO	LANALDIA/ JORNADA	PLAZA/ PLAZA	LANTOKIA/ CENTRO DE TRABAJO
Goi Mailako Teknikariak/ Técnicos Superiores	Informatikan lizentziatua/ Licenciado/a en Informática	A1	CO	-	"Etxe Sorgindua" Udal Bulegoa / Oficina Municipal "Casa Encantada"

Laugarrena.- "Proiektu INFORMATIKOEN ARDURADUNA" lanposturako zuzkidura sortzea, Gobernu Irekia eta Modernizazio arloari atxikia, honako ezaugarri hauekin:

Cuarto.- Crear una dotación del puesto de trabajo "RESPONSABLE DE PROYECTOS INFORMATICOS", adscrito al área de Gobierno Abierto y Modernización, con las siguientes características:

KODEA /CODIGO:	-
LANPOSTUAREN IZENA/DENOMINACION DEL PUESTO:	PROIEKTU INFORMATIKOEN ARDURADUNA/RESPONSABLE DE PROYECTOS INFORMATICOS
BETETZEKO MODUA/ FORMA DE PROVISION:	LEHIAKETA / CONCURSO
ARAUBIDE JURIDIKOA/REGIMEN JURIDICO:	FUNTZIONARIOA/ FUNCIONARIOA
ADMINISTRAZIOA/ ADMINISTRACION:	GETXOKO UDALA /AYUNTAMIENTO DE GETXO
ESKALA/ESCALA:	ADMINISTRAZIO BEREZIA ADMINISTRACION ESPECIAL
AZPIESCALA/SUBGRUPO:	A1
LANPOSTU-MAILAKO OSAGARRIAREN MAILA/NIVEL DE COMPLEMENTO DE DESTINO:	24
BERARIAZKO OSAGARRIA/ COMPLEMENTO ESPECIFICO	T19
HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: / PERFIL LINGUISTICO:	3
DERRIGORTASUN DATA/ FECHA PRECEPTIVIDAD:	01/01/2021

TITULAZIOA/TITULACION:	Informatikan lizentziatua/ Licenciado/a en Informática
BESTE BETEKIZUN BATZUK/ OTROS REQUISITOS:	
OHARRAK/ OBSERVACIONES:	
LANTOKIA/ CENTRO DE TRABAJO:	Getxoko Udaleko administrazioko bulegoak/ Dependencias administrativas Ayuntamiento de Getxo

Bosgarrena.- Sormen eta eraldaketa horiek berekin dakarte indarrean dauden langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda aldatzea. Aldaketa horrekin bat etorri, I. eranskin gisa erantsi da azalpen-memoria. Aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago jasota II. eranskinean, kreditua badagoela egiaztatzen duen eranskinean, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren nahitaezko txostenean, III. eranskinean.

Seigarrena.- Alkateari ahalmena ematen zaio, bere karguan diharduela, erabaki hau benetan betetzeko behar diren neurri guztiak har ditzan.

Zazpigarrena.- Akordio hau BAO n argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Quinto.- Estas creaciones y transformaciones llevan aparejadas la modificación de las vigentes Plantilla de Personal y Relación de Puestos de Trabajo, en concordancia con esta modificación se adjunta Memoria explicativa como Anexo I. La suficiente dotación presupuestaria viene recogida en el Anexo II certificación de existencia de crédito y el preceptivo informe de la Viceconsejería de Política Lingüística en el Anexo III.

Sexto.- Se faculta al Alcalde a fin de que en el ejercicio de su cargo pueda adoptar cuantas medidas resulten necesarias para el cumplimiento efectivo del presente Acuerdo.

Séptimo.- El presente acuerdo será publicado en el BOB, para general conocimiento.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 20 (PNV, EH Bildu, PSE-EE, E. Podemos)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

156.- PERUALDE ELKARTEAREKIN SINATUTAKO HITZARMENAREN FINANTZAKETA HANDITZEKO KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA (GETXO EKINEZ 2021).

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

156.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA AMPLIACIÓN DE LA FINANCIACIÓN DEL CONVENIO CON LA ASOCIACIÓN PERUALDE (GETXO EKINEZ 2021).

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2021/29, zenbatekoa 74.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2021/29 de Crédito Adicional, por importe de 74.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Programa	Zenbatekoa Importe en €
020/2310/7817700	Perualde Elkarte Asociación Perualde	Gizarte ekintza eta gizarteratzea Acción e integración social	74.000,00
Guztira Total			74.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	74.000,00
--	------------------

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Carmen Díaz
Nerea Guijarrubia

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: Aho batez /Unanimidad

LURRALDEA

157.- GETXOKO UDALAREN ETA "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A." (VISESA) SOZIJATE PUBLIKOAREN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN LUZAPENA ONESTEA, HITZARMENA 24-2 "ITURRIBARRI-II" EGIKARITZE UNITATEAN ALOKAIURIAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA SUSTATZEKO EGIN ZELA.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA: Getxoko Udalak eta

TERRITORIO

157.- APROBACIÓN DE LA PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA SOCIEDAD PÚBLICA "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A." (VISESA), PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN ALQUILER EN LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 24-2 "ITURRIBARRI-II".

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO: Aprobar la prórroga del

“Vivienda y Suelo de Euskadi S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.” (VISESA)k 2017ko azaroaren 17an sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren luzapena onartzea, hitzarmena 24-2 “Iturribarri- II” egikaritze unitatean alokairuan babes publikoko etxebizitza sustatzeko egin zela, ebazpen honen eranskinean ezarritako terminoetan.

BIGARRENA: Ebazpen honen berri ematea VISESAri, ondorio egokietarako.

HIRUGARRENA: Udaleko Kontu Hartzaitzari eta Diruzaintzari ebazpen hau jakinaraziko zaio.

convenio de colaboración suscrito con fecha 2 de noviembre de 2017 entre el Ayuntamiento de Getxo y la sociedad pública “Vivienda y Suelo de Euskadi S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.” (VISESA), para la promoción de vivienda de protección pública en alquiler en la unidad de ejecución 24.2 “Iturribarri-II”, en los términos expresados en el anexo a la presente resolución.

SEGUNDO: Notificar a los efectos oportunos la presente resolución a VISESA.

TERCERO: Dar traslado de la presente resolución a Intervención y Tesorería Municipal.

ERANSKINA/ANEXO

GETXOKO UDALAREN ETA “VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A.” SOZIETATE PUBLIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA GETXOKO (BIZKAIA) 24-2 “ITURRIBARRI-II” EGIKARITZE UNITATEAN ALOKAIURUAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA SUSTATZEKO: LUZAPENA	CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA SOCIEDAD PÚBLICA “VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A.”, PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN ALQUILER EN LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 24-2 “ITURRIBARRI-II” DE GETXO (BIZKAIA): PRÓRROGA.
Getxon, 2021ekoaren(e)(a)n.	En Getxo, a ... de ... de 2021.
BATZARTUTA	REUNIDOS
CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ jauna , adin nagusikoa, ezkongabea, ondorio hauetarako helbidea Gasteizko Gamarrako Atea kalea 1A. zenbakian, 2. solairuan duena, eta 09.737.292N NAN zenbakiduna.	D. CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ , mayor de edad, soltero, con domicilio a estos efectos en Vitoria-Gasteiz, c/ Portal de Gamarra 1 A, 2º Planta, con D.N.I nº 09.737.292N.
AMAIA AGUIRRE MUÑOA andrea , adin nagusikoa, eta ondorio hauetarako helbidea	De la otra, Dª. AMAIA AGUIRRE MUÑOA , mayor de edad, con domicilio a

Getxoko Foru kaleko 1. zenbakian duena.	estos efectos en Getxo, c/ Fueros 1.
<u>AZALDU DUTE</u>	<u>COMPARECEN</u>
<p>CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ jauna, iraupen mugagabeko Vivienda y Suelo de Euskadi SArean izenean eta berau ordezkatzuz (aurrerantzean VISESA), Gasteizen (01013) kokatutakoa, Gamarrako Atea kaleko 1A. zenbakian, 2. solairuan eta 1990eko otsailaren 12an eratua Gasteizko Alfredo Pérez Ávila notario jaunak baimendutako eskrituraren bitartez, bere 331 protokolo zenbakiarekin. Arabako Merkataritza Erregistroan izena emanda dago, 430 liburukia, 93 folioa, 602 orria, 6. izen-ematea. IFK zenbaki hauxe du: A-20306775.</p> <p>Sozietate horretako zuzendari nagusi eta ahaldu bezala jardun du, 2017ko urtarrilaren 11n Gasteizko Fernando Ramos Alcázar notario jaunaren aurrean emandako ahalordetza-eskrituraren arabera, eta baimena du hitzarmen hau sinatzeko, VISESAko Administrazio Kontseiluaren 2017ko irailaren 25eko erabakiarekin bat eginez.</p>	<p>D. CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ en nombre y representación de Vivienda y Suelo de Euskadi S.A (en adelante VISESA), de duración indefinida, domiciliada en Vitoria-Gasteiz (01013), en la calle Portal de Gamarra número 1A-2ª Planta, constituida mediante escritura autorizada por el Notario de Vitoria, Don Alfredo Pérez Ávila, el día 12 de febrero de 1990, bajo el número 331 de su protocolo. Figura inscrita en el Registro Mercantil de la Provincia de Álava, al tomo 430, folio 93, hoja número 602, inscripción 6ª. Tiene asignado el CIF número: A-20306775.</p> <p>Lo hace en su condición de Director General y Apoderado de dicha Sociedad, según escritura de apoderamiento otorgada ante el notario de Vitoria-Gasteiz, Don Fernando Ramos Alcázar, el día 11 de enero de 2017 y autorizado para la suscripción de este documento por Acuerdo día 25 de septiembre de 2017 del Consejo de Administración de VISESA.</p>
Eta AMAIA AGUIRRE MUÑOA andrea , Getxoko Udaleko alkate-udalburua, erakunde hori ordezkatzuz; toki korporazio horren osoko bilkurak 2021eko *****aren **an ***, hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.	Y Dª. AMAIA AGUIRRE MUÑOA , Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Getxo, en representación de dicha entidad, autorizada para este acto por el acuerdo del pleno nº *** de dicha corporación local de ** de ***** de 2021.

<p>Batzartutako guztiek lankidetza hitzarmena luzatzeko erabaki hau emateko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa aintzatesten diote elkarri, eta, ondore horretarako, honako hau</p>	<p>Todos los comparecientes se reconocen capacidad legal suficiente y necesaria para otorgar el presente acuerdo de prórroga del Convenio de Colaboración, y a tal efecto,</p>
<p style="text-align: center;"><u>ADIERAZI DUTE:</u></p>	<p style="text-align: center;"><u>EXPONEN</u></p>
<p>I.- 2017/11/02an Getxoko Udalaren eta "Vivienda y Suelo de Euskadi SA" (VISESA) sozietate publikoaren artean lankidetza hitzarmena sinatu zen, eranskinean ezarritako baldintzetan, "Iturribarri-II" 24.2 egikaritze-unitatean babes publikoko etxebizitza alokairuan sustatzeko.</p>	<p>I.- En fecha 2 de noviembre de 2017 se suscribió el convenio de colaboración entre el ayuntamiento de Getxo y la sociedad pública "Vivienda y Suelo de Euskadi S.A." (VISESA) para la promoción de vivienda de protección pública en alquiler en la unidad de ejecución 24.2 "Iturribarri-II".</p>
<p>II.- 2020ko azaroaren 19an hitzarmenaren aldaketa sinatu zen, II. Eranskin gisa erantsi zitzaion, bertan jasotako klausulen arabera.</p>	<p>II.- En fecha 19 de noviembre de 2020 se suscribió el acuerdo de modificación del mencionado convenio, que se incorporó al Convenio original como Anexo II conforme a las cláusulas recogidas en el mismo.</p>
<p>III.- Lankidetza hitzarmeneko 9. klausulako 2. atalean ezarritakoarekin bat etorritz: hitzarmena sinatu zen egunetik dago indarrean eta lau urteko indarraldia izango du.</p> <p>Beraz, hitzarmena 2017ko azaroaren 2an sinatu zen, eta 2021eko azaroaren 2an azkenduko litzateke.</p> <p>Gainera, klausula horrek xedatzen duenez, epe hori igaro aurretik, sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute beste lau urtez luzatzea edo azkentzea.</p>	<p>III.- De conformidad con lo establecido en la cláusula nueve apartado 2 del convenio de Colaboración, el mismo entró en vigor el día de su firma y estará vigente por un plazo de cuatro años.</p> <p>Por tanto, el convenio, que fue suscrito con fecha 2 de noviembre de 2017, se extinguiría el día 2 de noviembre de 2021.</p> <p>Dispone, asimismo, la citada cláusula que en cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo, los firmantes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo</p>

	de hasta cuatro años adicionales o su extinción.
IV.- Ikusita ezinezkoa izango dela obrak hitzarmenean aurreikusitako indarraldian amaitzea, eta hitzarmenaren xedea ematen jarraitzeko, alderdi sinatzaileek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmena luzatzea eta lankidetzarekin jarraitzea beste lau urtez.	IV.- A la vista de que no resultará factible concluir las obras en el plazo de vigencia previsto en el convenio y con el fin de dar continuidad a la prestación de su objeto, las partes firmantes estiman necesaria la prórroga del mismo y continuar con la colaboración por un nuevo período de cuatro años.
Dokumentu hau jatorrizko hitzarmenari erantsi zaio, III. Eranskin gisa, honako klausula hauen arabera.	El presente documento se incorpora al Convenio original como Anexo III, conforme a las siguientes cláusulas.
KLAUSULAK	CLÁUSULAS
<u>LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA</u>	<u>PRIMERA.- OBJETO</u>
Dokumentu honen xedea da GETXOKO UDALAREN ETA VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, EA" DERITZON SOZIJETATE PUBLIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA LUZATZEA; GETXOKO (BIZKAIA) "ITURRIBARRI-II" 24-2 EGIKARITZE-UNITATEAN ALOKAIKURUKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK SUSTATZE ALDERA. Hitzarmen hori 2017ko azaroaren 2an sinatu zen.	El objeto del presente documento es prorrogar el CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA SOCIEDAD PÚBLICA "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A. ", PARA LA PROMOCIÓN DE VIVIENDA DE PROTECCIÓN PÚBLICA EN ALQUILER EN LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 24-2 "ITURRIBARRI-II" DE GETXO (BIZKAIA) suscrito con fecha 2 de noviembre de 2017.
<u>BIGARRENA.- INDARRALDIA ETA ONDOREAK</u>	<u>SEGUNDA.- VIGENCIA Y EFECTOS.</u>
Sinatzaileek 2017ko azaroaren 2an sinatutako hitzarmena beste lau urtez	Las partes firmantes acuerdan la prórroga del Convenio suscrito con fecha 2 de

luzatzea adostatu dute. Ondorioz, hitzarmenaren ondorioak 2021eko azaroaren 2tik 2025eko azaroaren 2ra arte luzatuko dira.	noviembre de 2017, por un período adicional de cuatro años. En consecuencia, los efectos del presente acuerdo se extenderán desde el día 2 de noviembre de 2021 hasta el 2 de noviembre de 2025.
<u>HIRUGARRENA.- HITZARMENAREN EDUKIARI EUSTEA</u>	<u>TERCERO.- MANTENIMIENTO DEL CONTENIDO DEL CONVENIO</u>
2017ko azaroaren 2an sinatutako hitzarmeneko gainontzeko klausulak (I. eta II. Eranskinak barne) aldatu gabe mantenduko dira luzapenaren indarraldian zehar.	Se mantienen inalterables durante el período de vigencia de la presente prórroga, el resto de las cláusulas del Convenio suscrito el 2 de noviembre de 2017, incluidos el Anexo I y Anexo II del mismo.
<u>LAUGARRENA.- FINANTZAKETA</u>	<u>CUARTO.- FINANCIACIÓN</u>
Hitzarmenaren luzapenak ez du alderdien arteko betebeharrak ekonomorik sortzen.	Esta prórroga no comporta obligaciones económicas entre las partes firmantes.
Eta aurreko guztia onartzen dutela eta berarekin ados daudela adierazteko, parte hartu dutenek agiri honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.	Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente documento por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en su encabezamiento.
Izpt./Fdo.: D. CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ Director General de VISESA VISESAko Zuzendari Nagusia	Izpt./Fdo.: D^a. AMAIA AGUIRRE MUÑOA Alcaldesa de Getxo Getxoko Alkatea

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González
Nerea Guijarrubia
Eduardo Andrade
Ignacio Uriarte

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 19 (PNV, PP, PSE-EE)
EZ/NO: 6 (EH Bildu, E. Podemos)

**158.- OSOKO-BILKURAREN
2019/1/30EKO 11.ERABAKIA
ALDATZEA, ERABAKI HORI
TITULARTASUN
AUTONOMIKOKO SANTA
EUGENIA ALDEKO 7.1
EGIKARITZE-UNITATEA
ESKURATZEKO UDAL
TITULARTASUNEOAK DIREN
37.1-“VENANCIOS” EGIKARITZE-
UNITATEKO B ETA C
LURZATIEKIN NAHIZ 31.1-
“SARRIKOBASO” EGIKARITZE-
UNITATEA BERRIRO ZATITZEAN
SORTUTAKO FINKAREKIN
TRUKATZEARI BURUZKOA DELA.**

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Aldatzea Osoko Bilkuraren 2019-01-30eko akordioaren xedapen atalaren hirugarren zatia. Hala, honela geratuko idatzita:

“HIRUGARRENA: Trukea esandako 2009ko azaroaren 2ko konpromezu akordioan esandako baldintzetan egingo da, sinaturikoa Getxoko udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko 37.1 “Venancios” egikaritze-unitatean nahiz 31.1 “Sarrikobaso” egikaritze-unitatean, eta ekipamendu publikoak sustatzeko Santa Eugenia eremuko 7.1 egikaritze-unitatean, eta baldintza hauetan ere:

- Konpromisoen akordio horren xede diren gaur egungo udal lursailetan eraikiko diren etxebizitzak araubidea alokairuko araubide orokorra izango da 37.1 “VENANCIOS 37.1 eta SARRIKOBASO egikaritze-unitateetan. Aipatutako bi lurzatiak etxebizitzak alokairuko araubideak

**158.- MODIFICACIÓN DEL
ACUERDO PLENARIO N° 11 DE
30/01/2019 SOBRE ADQUISICIÓN
MEDIANTE PERMUTA DE LA
UNIDAD DE EJECUCIÓN 7.1 DEL
ÁREA DE SANTA EUGENIA, DE
TITULARIDAD AUTONÓMICA,
POR LAS PARCELAS B Y C DE LA
UNIDAD DE EJECUCIÓN 37.1
VENANCIOS Y LA FINCA
RESULTANTE DE LA
REPARCELACIÓN DE LA UNIDAD
DE EJECUCIÓN 31.1
SARRIKOBASO, DE TITULARIDAD
MUNICIPAL.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Modificar el apartado tercero de la parte dispositiva del acuerdo plenario nº 11 de fecha 30/01/2019, que queda redactado del siguiente modo:

“TERCERO: La permuta se realizará en los términos indicados en el acuerdo de compromisos de 2 de noviembre de 2009 referido, suscrito entre el ayuntamiento de Getxo y el Gobierno Vasco para la promoción de vivienda de protección oficial en la unidad de ejecución 37.1 Venancio y la unidad de ejecución 31.1 Sarrikobaso, y equipamientos públicos en la unidad de ejecución 7.1 del área de Santa Eugenia, y en los siguientes términos:

- El régimen de las viviendas que se van a construir en los terrenos municipales actuales objeto del referido acuerdo de compromisos será en alquiler de régimen general en las unidades de ejecución VENANCIO 37.1 y SARRIKOBASO 31.1. El régimen de alquiler de las viviendas de las dos

iraupen iraunkorra izango du.

- Getxon urtebetez erroldatuta egon direnei edo azken bost urteetan gutxienez hiru urte ez jarraituetan erroldatuta egon diren Getxoko herritarrei zuzenduta egongo dira etxebizitzak. Getxoko Udala Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean arituko da baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko.

- Euskadiko Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 6.3. artikuluan zein aipatutako konpromiso akordioan jasotako elkarlanaren esparruan emango ditu udalak bere lursailak.

BIGARRENA.- 2021eko martxoaren 11n sinatutako trukaketaren eskritura publikoan jasotzen diren akordioaren gainerakoak ez dira aldatuko.

HIRUGARRENA.- Ahalmena ematea Alkatezari erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan. Era berean, 2021eko martxoaren 11n notarioaren aurrean sinatutako trukatzeko-eskrituraren aldaketa sinatu ahalko du.

LAUGARRENA: Ebazpen hau Udaleko Hirigintza, Kontu-hartzailatza eta Diruzaintzari sailei jakinaraztea.

BOSGARRENA: Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari jakinaraztea.

parcelas citadas tendrá una duración permanente.

- Las personas destinatarias de las viviendas serán las personas vecinas de Getxo con una antigüedad de empadronamiento en Getxo de un año, o de tres años discontinuos en los últimos cinco. El Ayuntamiento de Getxo colaborará con Gobierno Vasco en la comprobación de dicho requisito.

- La aportación municipal de terrenos se realiza en el ámbito de colaboración recogido en el art. 6.3 de la Ley 3/2015, de Vivienda de Euskadi, así como en el del acuerdo de compromisos mencionado.

SEGUNDO.- Se mantienen inalterables el resto de los términos del acuerdo que se recogen en la escritura pública de permuta suscrita con fecha 11 de marzo de 2021.

TERCERO: Facultar a la Alcaldía para dictar cuantas disposiciones sean precisas para la ejecución del presente acuerdo, e igualmente para la firma de la correspondiente modificación de la escritura notarial de permuta firmada con fecha 11 de marzo de 2021.

CUARTO: Notificar la presente resolución a los departamentos municipales de Urbanismo, Intervención y Tesorería.

QUINTO: Notificar el presente acuerdo al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda, y Transportes de Gobierno Vasco.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González
Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Nerea Guijarrubia

Eduardo Andrade
Ignacio Uriarte

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 21 (PNV, PP, PSE-EE, E. Podemos)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 4 (EH Bildu)

Alkateak jakinarazi du EH Bilduk premiazko mozio bat aurkeztu duela pandemian zehar herritarrek parte hartzeko ezarritako baldintzei eusteko osoko bilkura, batzorde eta zuzendaritza batzarretarako, eta premiazko mozio hori bozkatzeari ekin zaio, baina gehiengoak atzera bota du. Beraz, mozioa ez da gai-zerrendan sartu.

La Alcaldesa informa de una moción de urgencia presentada por EH Bildu relativa a mantener las condiciones de participación ciudadana instauradas durante la pandemia para pleno, comisiones y juntas rectoras, y se procede a votar la urgencia de la misma, que es rechazada por mayoría, por lo que no se incluye la citada moción en el orden del día.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ibon Rodríguez
Carolina Uribe
Eduardo Andrade

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 6 (EH Bildu, E. Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

UDAL ORGANOEN KONTROLA

CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

159.- 4629/2021 DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ, ZUZENDU EGITEN DA UDALBATZAK 2021EKO MAIATZAREN 27AN HARTUTAKO 73. ERABAKIAN ATZEMANDAKO AKATSA.

159.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO N° 4629/2021 POR EL QUE SE CORRIGE EL ERROR OBSERVADO EN EL ACUERDO N° 73 ADOPTADO POR EL PLENO EL DÍA 27/05/2021.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

4629/2021 Dekretuaren edukien jakitun egon. Honako hau jasotzen du hitzez hitz:

Quedaron enterados del contenido del Decreto n° 4629/2021, cuyo tenor literal es el siguiente:

<<LEHENENGOA.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko proiektuan ikusitako akatsa zuzentzea, Osoko Bilkurak 2021eko maiatzaren 27an hartutako 73. Erabakiaren eranskin gisa ageri denean, bigarren xedapen iragankorrari buruzko puntuan. Aldaketa hurrengoa izango da:

Honako hau dioen lekuan:

“XEDAPEN IRAGANKORRA

Bigarrena. 2021eko abenduaren 31ra arte indarrean zegoen ordenantza honen 4.1 a) eta b) artikuluen idazketari jarraikiz aitortutako hobariak gozatzeko jarraituko dute horiez, baldin eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den idazketan eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta idazketa horretan aurreikusitako denboran zehar. Manu hori aplikatzearen ondorioz aitortutako gainerako hobariak ondorioz gabe geldituko dira 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera”.

Esan behar du:

“XEDAPEN IRAGANKORRA

Bigarrena. 2021eko abenduaren 31ra arte indarrean zegoen ordenantza honen 4.2 a) eta b) artikuluen idazketari jarraikiz aitortutako hobariak gozatzeko jarraituko dute horiez, baldin eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den idazketan eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta idazketa horretan aurreikusitako denboran zehar. Manu hori aplikatzearen ondorioz aitortutako gainerako hobariak ondorioz gabe geldituko dira 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera”.

SEGUNDA.- BAO n akatsaren zuzenketa argitaratzea, ordenantzaren behin betiko aldaketa onesteko iragarkian, eta udal

<<PRIMERO.- Corregir el error observado en el Proyecto de modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica que figura como anexo del Acuerdo nº 73 adoptado por el Pleno el día 27 de mayo de 2021 en el punto relativo a la Disposición Transitoria Segunda, en el sentido siguiente:

Donde dice:

“DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Segunda.- Las bonificaciones reconocidas en virtud de la redacción vigente hasta el 31 de diciembre de 2021 del artículo 4.1 a) y b) de esta Ordenanza continuarán disfrutando de las mismas en el caso de que cumplan los requisitos exigidos en la redacción vigente a partir del 1 de enero de 2022 y por el tiempo previsto en la misma. El resto de bonificaciones reconocidas en aplicación de dicho precepto quedarán sin efecto a partir del 1 de enero de 2022.”

Debe decir:

“DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Segunda.- Las bonificaciones reconocidas en virtud de la redacción vigente hasta el 31 de diciembre de 2021 del artículo 4.2 a) y b) de esta Ordenanza continuarán disfrutando de las mismas en el caso de que cumplan los requisitos exigidos en la redacción vigente a partir del 1 de enero de 2022 y por el tiempo previsto en la misma. El resto de bonificaciones reconocidas en aplicación de dicho precepto quedarán sin efecto a partir del 1 de enero de 2022.”

SEGUNDA.- Publicar en el BOB una corrección del error en el anuncio de aprobación definitiva de la modificación de

webgunean argitaratutako testua aldatzea.

la ordenanza y modificar el texto publicado en la web municipal.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea udaleko Osoko Bilkurari.>>

TERCERA.- Dar cuenta de la presente resolución al Pleno del Ayuntamiento. >>

160.- UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2021EKO 3. HIRUHILEKOA).

160.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (3º TRIMESTRE DE 2021).

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

TRIM 03/2021 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería TRIM 03/2021 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

161.- HAINBAT EBAZPEN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZI.

161.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Kreditu gehigarrien erabileraren bidezko aurrekontu-aldaketari buruzko Zinegotzi Eskuordearen Ebazpen hauen jakitun egon:

Quedaron enterados de las siguientes resoluciones de Concejal Delegado de modificaciones presupuestarias mediante el uso de crédito adicional:

3944/2021 zenbakidun Ebazpena 150.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/20. Aldian behingoak ez diren udallaguntzak.

Resolución nº 3944/2021 por un importe de 150.000,00 euros. Crédito adicional 2021/20 Ayudas municipales no periódicas.

4014/2021 zenbakidun Ebazpena 60.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/21. Ikastetxeetan 2021eko urria, azaroa eta abendurako karpn alokatzea eta muntatzea.

Resolución nº 4014/2021 por un importe de 60.000,00 euros. Crédito adicional 2021/21. Alquiler y montaje de las carpas en los centros escolares para los meses de octubre, noviembre y diciembre de 2021.

4282/2021 zenbakidun Ebazpena 70.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/22. Egituran, materialean eta itsasontzietan egindako inbertsioa finantzatzea, Getxoko ur-kiroletako jarduerak egiteko, modalitate guztietan.

4337/2021 zenbakidun Ebazpena 48.500,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/23. Gobelaurreko lokaletako lurzorua aldatzea.

4349/2021 zenbakidun Ebazpena 220.800,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/24. Azpiegituretan hainbat inbertsio finantzatzea.

4393/2021 zenbakidun Ebazpena 140.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/25. Raspaseko pantalana handitzea.

4509/2021 zenbakidun Ebazpena 31.300,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/26. Udalerriko ekonomia sustatzeko Getxo Ekinez 2021 Planaren 38. eta 41. ekintzen finantzaketa.

4543/2021 zenbakidun Ebazpena 40.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/27. 3.815 m²-ko lurzatia eskuratzea, Larrañazubiko udal ingurumen gunea erdian, Leioako udalmugartean.

162.- KREDITU GAITZEEN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUA ALDATZEKO HAINBAT EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Resolución nº 4282/2021 por un importe de 70.000,00 euros. Crédito adicional 2021/22. Financiar la inversión en estructura, material y embarcaciones para la realización de actividades de deportes náuticos en todas sus modalidades en Getxo.

Resolución nº 4337/2021 por un importe de 48.500,00 euros. Crédito adicional 2021/23. Cambio del suelo de los locales de Gobelaurre.

Resolución nº 4349/2021 por un importe de 220.800,00 euros. Crédito adicional 2021/24. Financiación de diferentes inversiones en infraestructuras.

Resolución nº 4393/2021 por un importe de 140.000,00 euros. Crédito adicional 2021/25. Ampliación del pantalán de Raspas.

Resolución nº 4509/2021 por un importe de 31.300,00 euros. Crédito adicional 2021/26. Financiación de las acciones 38 y 41 del Plan Getxo Ekinez 2021 para la promoción económica del municipio.

Resolución nº 4543/2021 por un importe de 40.000,00 euros. Crédito adicional 2021/27. Adquisición de parcela de 3.815 m² sita en medio del complejo ambiental municipal de Larrañazubi en el término municipal de Leioa.

162.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE HABILITACIONES DE CRÉDITO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y

Cuentas:

Kreditu-gaikuntzaren erabileraren bidezko aurrekontu-aldaketari buruzko Zinegotzi Eskurdearen Ebazpen hauen jakitun egon:

4576/2021 zenbakidun Ebazpena 56.754,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/07F kreditua gaitzea. Eskualdeko lehiakortasuna bultzatzeko 2021eko programa.

163.- KONTUHARTZAIETZAREN 35/2021 TXOSTENAREN BERRI EMATEA. FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKOA DA TXOSTEN HORI, ETA HONEKIN DAGO LOTUTA: AURREKONTUAREN ALDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2020KO UDAL-AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO ALTXORTEGIKO GELDIKINA 2021EKO ALDIAN (LEHENENGO, BIGARREN ETA HIRUGARREN HIRUHILEKOETAN) GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

1.- Udaleko Kontu-hartzaitzak finantza iraunkortasunari buruz egindako urriaren 13ko 35/2021 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2021ean (lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruilekoan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

2.- 35/2021 txosten hori Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari igortzea, osoko bilkuraren akta eta euskarri izan daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

Quedaron enterados de las siguientes resoluciones de Concejal Delegado de modificaciones presupuestarias mediante el uso de habilitación de crédito:

Resolución nº 4576/2021 por un importe de 56.754,00 euros. Habilitación de crédito 2021/07F. Programa de impulso a la competitividad comarcal año 2021.

163.- DACION DE CUENTA DEL INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 35/2021 DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL CORRESPONDIENTE PERIODO 2021 (PRIMERO, SEGUNDO Y TERCER TRIMESTRE), DEL REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2020 PARA FINANCIAR MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 35/2021, de 13 de octubre, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias durante el 2021 (primer, segundo y tercer trimestre).

2º.- Remitir dicho informe Nº 35/2021, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento competente en materia de tutela financiera de la Diputación Foral de Bizkaia.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

164.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: APARKALEKUA ERAIKITZEA AREETAN.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Getxoko Udalak argitaratutako herritarren azken inkestak ezartzen du getxotarren kezka nagusia, %74rena, aparkaleku falta dela.

Herritarren ardura nagusia hori bada ere, ikus dezakegu EAJtik eta PSEtik berriki egindako jakinarazpenek diotela aurreikusten dutela aurki gutxienez 100 aparkaleku kentzea Areeta-Romo inguruan. Zehazki, hurrengoak kendu nahi dituzte:

- 25 aparkaleku gutxiago Zugazarte-Mesedeetako kale inguruan.
- 55 plaza gutxiago Kale Nagusia zati batean oinezkoentzako bihurtzeko lanen ondorioz.
- 25 plaza gutxiago Romoko Sarajevoko aparkalekuan.

Gobernuak beste behin ere entzungor egin dio gure familien arazoari, baita bere Mugikortasun Jasangarriko Plan propioari ere, eta, bistan denez, alderdi popularretik behin eta berriz egin ditugun eskaerei.

Manuel Gaintzako aparkalekua eraikitzeko PPren eta EAJren arteko akordioaren emaitza onari esker, berretsi egiten dugu Areeta-Romon beste aparkaleku bat eraikitzeko

MOCIONES E INTERPELACIONES

164.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA CONSTRUCCIÓN DE APARCAMIENTO EN LAS ARENAS.

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

La última encuesta de satisfacción ciudadana publicada por el Ayuntamiento de Getxo establece que la principal preocupación de la ciudadanía getxotarra es la falta de aparcamiento con un 74%.

A pesar de ser esta la mayor preocupación ciudadana, podemos observar como las recientes comunicaciones desde el PNV y PSE indican que en breves fechas tienen previsto eliminar, al menos, 100 parcelas de aparcamiento en la Zona de las Arenas/Romo. En particular tienen previsto eliminar:

- 25 parcelas menos en la zona de Zugazarte/Las Mercedes.
- 55 parcelas menos en la semipeatonalización de la calle Mayor.
- 25 parcelas menos en el aparcamiento de Sarajevo de Romo.

El gobierno ignora de nuevo la problemática de nuestras familias, ignora su propio Plan de Movilidad Sostenible e ignora las reiteradas peticiones del Partido Popular.

El acierto en la construcción del parking de Manuel Gainza, fruto del acuerdo entre el PP y el PNV, nos reafirma en la necesidad de solicitar la construcción de un nuevo

beharra, eta hala eskatzen dugu.

Gure ustez, ezin dugu jarraitu aparkalekuak kentzen ibilgailuen jabeen konponbide bat eskaini gabe.

Zalantzarik gabe, etorkizuneko Romoko Belaunaldi Arteko Zentroaren obrak aprobetxatu ahal izango lirateke lurpeko aparkaleku bat egiteko edo, bestela, gure alderdiak jada aurkeztutako proiektua aprobetxatu, Kale Nagusiaren hasieran 91 plazako aparkaleku bat egitean datzana.

Aukerak asko dira, borondatea baino ez da behar.

Azaldutako guztiagatik, Popular Udal Taldeak honako hau aurkezten du:

ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENENGOA: Beharrezko izapideak abiatzeko Areetan aparkaleku bat diseinatu, proiektatu eta eraikitzeko.

BIGARRENA: Mozio honen berri eman dadila udal komunikabideetan.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Eduardo Andrade
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Janire Ocio

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 5 (PP)
EZ/NO: 6 (EH Bildu, E. Podemos)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN:14 (PNV, PSE-EE)

165.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GERNUEN AURKAKO TRATAMENDUA FATXADETAN ETA HIRIKO ALTZARIETAN.

aparcamiento en Las Arenas/Romo.

A nuestro entender no se pueden seguir eliminando parcelas de aparcamiento sin dar una solución a los propietarios de vehículos.

Sin duda se podrían aprovechar las obras del futuro Centro Intergeneracional de Romo, para hacer un aparcamiento subterráneo o aprovechar el proyecto ya presentado por nuestro partido de un aparcamiento al inicio la calle mayor con 91 parcelas.

Posibilidades hay muchas, sólo hace falta voluntad.

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Que se inicien, los trámites necesarios para el diseño, la proyección y la construcción de un aparcamiento en las arenas.

SEGUNDO: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

165.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/TRATAMIENTO ANTIORINES EN FACHADAS Y MOBILIARIO URBANO.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Getxoko Alderdi Popularrak osoko bilkura honetara dakar gure udalerriko hiri altzarietan nahiz gure etxeetako fatxadetan txakurren gernuak eragiten duten arazoa landu eta konpontzeko eskaera. Aurrez landu ez izanak ez du esan nahi gaia ez denik garrantzitsua.

Gai honi eman behar zaion garrantzia ren muina dira gervuen kalteak, objektu materialei nahiz gure kaleen osasungarritasunari eragiten dietenak. Horrez gain, irudi negatiboa helarazten die herritarrei zein turistei. Objektu materialetan, hau da, hiriko altzarietan, kalteak sortzen dituzte, eta horiek kostu handia dakartzate udalarentzat. Osasungarritasunari lotutako kalteak izan ohi dira, bereziki udako hilabeteetan, arnastu ezinezko hatsa sortzen baitute. Eragin turistikoari dagokionez, inori ere ez zaio gustatzen udalerrri zikin bat bisitatzea, eta deieftektua ez da gertatzen.

